

# ALDIZKARI NAGUSIA BOLETÍN OFICIAL

Donostiako Elizbarrutia  
Diócesis de San Sebastián

2023 urtarrila-otsaila  
enero-febrero

LXXIV - número 771 zenbakia





**Donostiako  
Elizbarrutia**  
Diócesis de  
San Sebastián

Heriz pasealekua, 82 (Seminarioa) - 20008 Donostia ☎ 943 285 000  
✉ [idazkaritza@elizagipuzkoa.org](mailto:idazkaritza@elizagipuzkoa.org) ♦ [www.elizagipuzkoa.org](http://www.elizagipuzkoa.org)

AURKIBIDEA  
ÍNDICE

## SEÑOR OBISPO

### **Cartas**

<i>Caminando en esperanza</i> . En el día de la Vida Consagrada.	
Fiesta de la Presentación del Señor .....	12
Mensaje de Cuaresma 2023 .....	18

### **Homilias**

Misa funeral por el eterno descanso del Papa Benedicto XVI .....	24
Día de San Sebastián.....	27
Jornada de la Vida Consagrada.....	30

### **Agenda**

Enero-febrero.....	34
--------------------	----

### **Otros**

<i>Hilean behin</i> .....	42
Entrevista a Mons. Fernando Prado, CMF. Revista Los Ríos.....	46

## SECRETARÍA GENERAL

<b>Confirmaciones</b> .....	53
-----------------------------	----

### **Otros**

Sacerdotes de la Diócesis de Bilbao fallecidos en 2022 .....	54
Sacerdotes de la Diócesis de Vitoria fallecidos en 2022.....	55

## VICARÍA GENERAL

III Encuentro Sinodal Diocesano.....	58
--------------------------------------	----

### **Instituto Superior de Ciencias Religiosas Pío XII**

Presentación del libro de Jaime Navarro .....	60
---	----

## GOTZAIN JAUNA

### **Gutunak**

*Itxaropenaren bidetik.* Bizitza Sagartuaren egunean.

Jaunaren Aurkezpenaren Jaia .....	13
2023ko Garizumako mezua .....	19

### **Homiliak**

Benedikto XVI.a Aita Santuaren Hileta-elizkizuna .....	24
San Sebastian eguna.....	27
Bizitza Sagartuaren Jardunaldia .....	30

### **Agenda**

Urtarrila-otsaila .....	35
-------------------------	----

### **Gainerakoak**

<i>Hilean behin</i> .....	43
---------------------------	----

## IDAZKARITZA OROKORRA

<b>Sendotzak</b> .....	53
------------------------	----

### **Gainerakoak**

Bilboko Elizbarrutian 2022an hildako apaizak.....	54
Gasteizko Elizbarrutian 2022an hildako apaizak .....	55

## BIKARITZA NAGUSIA

Elizbarrutiko Sinodo-erako III. Topaketa .....	59
--	----

### **Pio XII.a Erlijio Zientzietarako Goi Ikastegia**

Jaume Navaroren liburuaren aurkezpena.....	61
--	----

## **Museo Diocesano**

Actividades del Museo ..... 62

## **Servicio Diocesano de Economía y Administración**

Necesidades pastorales de la Diócesis. Resumen de lo recaudado en 2022 ..... 68

## VICARÍAS EPISCOPALES DE PASTORAL

### PASTORAL DE EVANGELIZACIÓN

Semana de la Paz ..... 72

### **Servicio Diocesano de Atención Pastoral al Inmigrante**

Vigilia de Oración contra la Trata de personas..... 76

### PASTORAL SOCIAL Y MISIONES

#### **Servicio Diocesano de Caritas**

Actividades ..... 78

#### **Servicio Diocesano de Pastoral Penitenciaria**

Adviento y Navidad en Martutene ..... 84

#### **Servicio Diocesano de Misiones y Cooperación**

Día de la Infancia Misionera. Resumen de lo recaudado en 2022 ..... 88

#### **– Manos Unidas**

Campaña contra el hambre. Resumen de lo recaudado en 2022 ..... 90

## CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

Jornada Mundial de la Vida Consagrada ..... 94

## SANTA SEDE

### **Mensajes**

Jornada Mundial de la Vida Consagrada ..... 100

Jornada Mundial de Oración y Reflexión contra la trata de personas..... 101

Cuaresma 2023 ..... 103

## **Elizbarrutiko Museoa**

Museoaren jarduerak ..... 63

## **Ekonomia eta Administrazioarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

Elizbarrutiaren Pastoralta Beharretarako. 2022ko diru-bilketaren laburpena ..... 69

## PASTORALTZARAKO GOTZAIN BIKARITZAK

### EBANJELIZATZE PASTORALTA

Bakearen Astea ..... 73

### **Etorkinen Arreta Pastoralerako Elizbarrutiko Zerbitzua**

Pertsonen Salerosketaren Kontrako Otoitz Gaubeila ..... 77

### SOZIAL ETA MISIO PASTORALTA

### **Caritas Elizbarrutiko Zerbitzua**

Jarduerak ..... 79

### **Espetxeratuekiko Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

Abendualdia eta Gabonak Martutenen..... 85

### **Misioen eta Lankidetzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

Haur Misiolarien eguna. 2022ko diru-bilketaren laburpena..... 89

### **– Manos Unidas**

Gosearen aurkako kanpaina. 2022ko diru-bilketaren laburpena ..... 91

## ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA

## ERROMATIK



GOTZAIN JAUNA  
SEÑOR OBISPO

---

## Cartas

San Sebastián, 2 de febrero de 2023

### **CAMINANDO EN ESPERANZA**

*En el día de la vida consagrada  
Fiesta de la Presentación del Señor*

Queridos diocesanos:

Hoy es un día para agradecer a Dios el don de la vida consagrada, reflejo de esa Luz de las gentes que es Cristo, nuestro Señor. Ellos y, sobre todo ellas (que numéricamente son muchas más), nos recuerdan a todos la vida de Jesús, entregado todo al Padre y todo a todos.

Tenemos la suerte de que Dios nos ha regalado un buen número de personas consagradas que forman parte, con los demás, de la familia diocesana, de su vida y misión. Las personas consagradas aquí son 'de casa'. Junto con los demás miembros del pueblo de Dios se sienten 'parte', colaboran y viven preocupadas por las cuestiones que nos afectan a todos. Las sienten como propias. Esta pertenencia y cercanía al resto de cristianos de Gipuzkoa es fuente de alegría para ellas y para todos los demás. Por lo mismo, los sacerdotes religiosos son estimados y considerados con toda razón como parte del presbiterio. Junto con los sacerdotes seculares colaboran estrechamente, afectiva y efectivamente con el obispo en la misión de servir a las comunidades cristianas.

Donostian, 2023ko otsailaren 2an

## **ITXAROPENAREN BIDETIK**

*Bizitza sagaratuaren egunean  
Jaunaren Aurkezpenaren Jaia*

Eliztar maiteak:

Jaungoikoari bizitza sagaratuaren dohaina eskertzeko eguna da gaur, Kristo, gure Jauna, den jendearen Argi horren isla. Denek baina batez ere emakumeek (gehiago baitira) Jesusen bizitza gogorarazten digute, dena Aitari eta dena guztiei emanda.

Zorionez, elizbarrutiko beste pertsonekin batera, elizbarrutiaren familiaren, bizitzaren, eta misioaren parte diren pertsona sagaratu ugari oparitu dizkigu Jainkoak. Sagaratutako pertsonak 'etxekoak' dira hemen. Jaungoikoaren herriko gainerako kideekin batera, 'parte' sentitzen dira, eta guztioi eragiten dituzte. Gipuzkoako gainerako kristauekiko kidetasun eta hurbiltasun hori poz-iturri da haientzat eta gainerako guztientzat. Horregatik, estimatuak izateaz gainera, presbiterioaren partetzat hartzen dira apaiz erlijiosoak, arrazoi osoz. Apaiz sekularrekin batera, estuki, afektiboki eta zinez laguntzen diote gotzainari kristau elkarteak zerbitzatzeko zereginetan.

Doy gracias, de corazón, por ese vivo y sincero sentimiento de corresponsabilidad con la diócesis y por todo lo que llevan adelante desde sus comunidades y sus obras al servicio de Dios y los hermanos. Cuanto más voy conociendo sobre el terreno, más y más me maravillo del don y del regalo recibido de la vida consagrada.

Pero más allá de lo que colaboran u ofrecen en la pastoral de la diócesis, me quedo con lo que son.

Queridos religiosos y religiosas: sois los amigos fuertes de Dios en estos tiempos recios, llenos de desafíos y cambios que desafían la Esperanza. En medio de todo, conserváis la alegría y mantenéis viva la Esperanza. Os habéis tomado en serio la verdad de que «Jesucristo es el mismo ayer, y hoy y siempre» (*Hb 13, 8*) y nos ofrecéis ese testimonio con vuestras vidas. Esa es vuestra mayor riqueza: el testimonio de esperanza que asoma en vuestra incuestionable y probada vida de fidelidad. Como una luz, los demás descubrimos en vuestro caminar en esperanza, un motivo para la nuestra.

Hace tan solo unos días fallecía en nuestra diócesis una de nuestras dos vírgenes consagradas, Rita Pueyo Landa. Recién ordenado obispo, recibí una preciosa carta llena de sensibilidad creyente y con una ‘unción’ especial. En ella Rita me decía: «...en la medida en que mis fuerzas me lo permiten sigo entregando mi vida por completo al servicio de la Iglesia y de la diócesis, cuidando de algunas cosas en la parroquia de Santa María, en Tolosa, como los paños litúrgicos que intento lavar y planchar con todo el cuidado y con todo el amor que puedo». Rita falleció con 96 años. Sin duda, un bello testimonio de fidelidad y de una vida plena, llena de Dios, al servicio de los hermanos. Ojalá el Señor me conceda vivir y morir con ese espíritu.

Pero Rita no es sino un ejemplo más. Nuestra diócesis y nuestros pueblos están llenos de hombres y mujeres consagrados, como ella, que son auténticos testimonios de fidelidad y entrega. Son más de mil las personas consagradas que, desde su modo de ser y de vivir, fecundan la Iglesia local con su oración, su disponibilidad y sus obras apostólicas. La historia de nuestra provincia y de

Eskerrik asko, bihotzez, elizbarrutiarekiko erantzunkidetasun sentimendu bizi eta zintzo horrengatik eta euren komunitateetatik eta Jaungoikoaren zein anai-arreben zerbitzura egiten duten lanarekin aurrera ateratzen duten guztiagatik. Zenbat eta gehiago ezagutu bertatik bertara, orduan eta gehiago miresten dut bizitza sagaratutik jasotako dohaina eta oparia.

Baina elizbarrutiko pastoraltzan laguntzen edo eskaintzen dutenarekin ez ezik, direnarekin ere geratzen naiz.

Lekaide eta lekaime maiteak: Jainkoaren lagun indartsuak zarete Itxaropenari aurre egiten dioten erronka eta aldaketez betetako garai latz hauetan. Zailtasun guztien aurrean, Pozari eusten diozue, eta bizirik mantentzen duzue Itxaropena. Serio hartu duzue Jesu Kristo atzo, gaur eta beti bat bera izatea (*Hb* 13, 8), eta zuen bizitzarekin eskaintzen diguzue testigantza hori. Horixe da zuen aberastasunik handiena: ukaezina den zuen bizitza leial horretan agertzen den itxaropen-testigantza. Argi bat balitz bezala, zuen ibilbide horretan aurkitzen dugu gainerakook gure bidea egiteko itxaropena, arrazoa.

Orain gutxi hil da, gure elizbarrutian, gure bi birjina sagaratueto bat, Rita Pueyo Landa. Gotzain ordenatu berri nintzela, fedez eta sentiberatasunez betetako gutun eder bat jaso nuen, 'mezu' berezi batekin. Hauxe esan zidan Ritak: «Nire indarrek uzten didaten neurrian, Elizaren eta elizbarrutiaren zerbitzura jarrita dut nire bizitza; Tolosako Santa Maria parrokiako gauza batzuk zaintzen ditut, oihal liturgikoak, besteak beste, eta kontu handiz eta ahal dudan maitasun guztiarekin garbitzen eta lisatzen saiatzen naiz». 96 urterekin hil da Rita. Zalantzarik gabe, Jainkoz betetako eta anai-arreben zerbitzura emandako bizitza bete eta leialaren testigantza ederra utzi digu. Niri ere emango ahal dit Jaunak espiritu horrekin bizitzeko eta hiltzeko aukera.

Rita beste adibide bat besterik ez da, ordea. Gure elizbarrutia eta gure herriak bera bezala benetako leialtasunaren eta entregaren testigantza diren gizon eta emakume sagaratu bezalakoak, beren otoitz, eskuragarritasun eta obra apostolikoekin, herriko Eliza ernaltzen dutenak. Gure probintziaren eta

nuestra tierra tiene el olor de la santidad de muchos de sus antecesores que han dejado una huella evangélica legible y digna de encomio.

Los conozco de cerca y sé bien que están de parte de quienes quieren dar a la vida y a la Iglesia una forma positiva, proactiva, sencilla y más evangélica. Son testigos de una esperanza que, contra toda desesperación silenciosa o manifiesta, remite a la fidelidad y a la solicitud amorosa de Dios. Una palabra que a los demás nos lleva a Jesucristo.

Gracias, de verdad, por ese testimonio que ilumina nuestro caminar en esperanza.

El próximo domingo, nos reuniremos en la catedral del Buen Pastor en una solemne Eucaristía de acción de gracias por la vida consagrada. Estáis todos invitados a uniros en la oración y en la celebración. Agradezco a todos y a todas, hoy especialmente a las personas consagradas, vuestras oraciones y vuestro cariño, que me dan la certeza de que el Señor me acompaña también como pastor desde los comienzos de mi ministerio entre vosotros. Os lo agradezco, de corazón.

In Corde Matris,

**✠ Fernando**

*Obispo de San Sebastián*

gure lurraldearen historiak aurreko askoren santutasunaren usaina du, ebanjelioaren aztarna argi eta goresgarria utzi baitute.

Gertutik ezagutzen ditut, eta ondo dakit bizitzari eta Elizari irudi positibo, proaktibo, sinple eta ebanjelikoagoa eman nahi diotenen alde daudela. Etsipen isil edo ageriko ororen aurka, Jainkoaren leialtasun eta maitasun eskaerara daraman Itxaropenaren lekuko dira. Hitz horrek Jesu Kristorengana garamatza besteok.

Eskerrik asko, benetan, gure itxaropen-bidea argitzen duen lekukotza horrengatik.

Datorren igandean, Artzain Onaren katedralean bilduko gara, bizitza sagaratuagatik eskerrak emateko Eukaristia solemne batean. Gonbidatuta zaude te guztiak otoitzean eta ospakizunean bat egitera. Eskerrak eman nahi dizkiet guztioi, baina gaur pertsona sagaratupei, bereziki, zuen otoitz eta maitasunagatik; izan ere, seguru nago Jauna lagun dudala, nire ministerioaren hasieratik zuen artean dudan artzain lanean. Eskerrik asko, bihotzez.

In Corde Matris,

**✠ Fernando**

*Donostiako gotzaina*

## MENSAJE DE CUARESMA 2023

*Rasgad vuestro corazón, no vuestras vestiduras (Joel 2, 12)*

Algunos sacerdotes se rasgaban las vestiduras, alzando las manos al cielo, proclamando públicamente el escándalo que producían los comportamientos de los demás, creyéndose y apareciendo ante el resto como justos y puros ante Dios.

Pero la voz del profeta pone el contrapunto: *¡Rasgaos el corazón, no las vestiduras! (Jl 2, 12)*. Volved, con humildad a vuestra verdad. No os escandalicéis tanto de los comportamientos de los demás. Volved a vuestro corazón y caed en la cuenta de que quizá no tengáis mucho de lo que presumir. No seáis hipócritas. Tened cuidado de que vuestro rasgaros las vestiduras no se convierta incluso en motivo de mayor escándalo que el que queréis denunciar. Esa falta de humildad, en verdad, habla de una lejanía real con Dios, de una vida sin corazón, sin caridad, de una falta grave de misericordia, impropia no solo de un sacerdote, sino de cualquier creyente. Al Padre, que ve en lo secreto, no se le puede engañar (cf. Mt 6).

En definitiva, ¿Qué es entrar en cuaresma, sino un volver a nuestra verdad más profunda, volver al corazón y ver si este está o no en sintonía con el Dios que nos ama y nos llama? Esto es la cuaresma: un camino espiritual de preparación para la Pascua en el que nos ponemos ante Dios, porque queremos volvernos a él, queremos convertirnos, volver a mirarlo cara a cara, volver a recuperar nuestra verdad más profunda de hijos y hermanos, alejando de nosotros todo aquello que lo impide.

Se trata de un tiempo litúrgico fuerte; un tiempo también de prueba, en el que vivimos —en la intimidad con Dios—, un combate espiritual. La Cuaresma supone para todos nosotros una oportunidad nueva para seguir a Jesús y fortalecernos en la lucha contra el pecado y contra el mal, contra sus efectos en nosotros y, sobre todo, contra sus causas. Entrar en cuaresma significa, por

## 2023ko GARIZUMAKO MEZUA

*Urta ezazue bihotza, ez jantziak (Joel 2, 12)*

Apaiz batzuek jantziak urratzen zituzten, eskuak zerura altxatuz, eta publikoki aldarrikatzen zuten besteen portaerek sortzen zuten eskandalua, euren burua garbitzat eta justutzat zutelakoan Jaunaren aurrera joateko, eta halaxe agertzen ziren besteen aurrean.

Profetaren ahotsak kontrapuntua jarriko du, ordea: *Urta ezazue bihotza, ez jantziak! (Joel 2, 12)*. Itzul zaitezte zuen egia, apaltasunez. Ez hainbeste asaldatu besteen portaerekin. Itzul zaitezte zure bihotzera, eta kontura zaitezte agian ez duzuela harrotzeko moduko arrazoi askorik. Ez izan hipokritak. Kontuz ibili, zuen jantziak urratuta salatu nahi duzuen baina eskandalu handiagoa ez sortzeko. Jainkoarengandik urrun gaudela adierazten du apaltasun falta horrek, zinez; bihotzik gabeko bizitza, kariataterik gabekoa, erakusten du, erruki falta handia, apaiz bati ez ezik edozein fededuni ere ez dagokiona. Aitak ezkutuan ikusten du, ezin da Aita engainatu (cf. Mt 6).

Azken batean, zer da, bada, garizuman sartzea? Ez al da gure egiarik sakonenera itzultzea, bihotzera itzultzea, eta maite eta deitzen gaituen Jainkoarekin bat datorren ala ez ikustea? Hauxe da garizuma: Pazkorako prestatzeko bide espirituala; beraz, Jaungoikoaren aurrean jarriko gara, bereganatu itzuli nahi dugulako; bihurtu egin nahi dugu, aurrez aurre begiratu nahi diogu berriro, seme-alaba eta anai-arreba gisan dugun egia sakonena berreskuratu nahi dugu, hori eragozten duen guztia gugandik urrunduta.

Liturgia-garai gogorra da; baita froga garaia ere, eta borroka espiritual biziko dugu Jainkoarekiko intimitatean. Jesusi jarraitzeko eta bekatuaren eta gaizkiaren aurkako borrokan geure burua indartzeko aukera berri bat da garizuma gu guztiontzat, gure baitan dituen ondorioen aurka eta, batez ere, bere kausen aurka. Beraz, gaizkiari Kristorekin batera aurre egiteko erabaki

tanto, renovar la decisión personal -y comunitaria- de afrontar el mal junto con Cristo y disponernos para vivir, a la luz de la Resurrección, una vida nueva y renovada. La luz de la Pascua es nuestro horizonte. Somos gente de Pascua.

En este combate espiritual, las tradicionales armas —ayuno, limosna y oración— junto con otras prácticas, nos ayudan. En ese sentido os propongo cuatro cosas sencillas que podemos hacer durante esta cuaresma para ayudarnos en el camino:

1. *Escuchar la Palabra de Dios cada día*: las lecturas de la Liturgia de la cuaresma nos pueden servir de itinerario. Hay muchos recursos para ello. También en internet. Nos hace bien ser menos ricos de nuestras palabras para ser más ricos de las suyas. Escuchemos a Jesús, que nos habla en su Palabra.
2. *Un gesto solidario*: contribuir con sacrificio en un proyecto concreto de ayuda a la gente sin techo. El albergue diocesano «Hotzaldi» tiene en proyecto cubrir 25 nuevas plazas para personas sin hogar. Cáritas nos informará de cómo colaborar en este proyecto.
3. *Un sacramento*: el sacramento de la penitencia o reconciliación es una buena oportunidad para renovar en nosotros la vida cristiana experimentando la fuerza del perdón y de la misericordia de Dios. A buen seguro, a lo largo de la cuaresma podrás encontrar un sacerdote para poder confesarte. No dejes de participar en tu parroquia, si es el caso, en los actos y celebraciones penitenciales programados.
4. *Una peregrinación*: Caminar, como todos los años, en comunidad de hermanos, el sábado anterior al Domingo de Ramos, a la casa de nuestra madre de Aránzazu. Como sucede cuando vamos a la casa de la madre, experimentaremos, sin duda, la alegría de los hermanos que se reúnen y se sienten en comunión. Juntos, niños, jóvenes y adultos, como compañeros de viaje, construimos la Iglesia del Señor. Estad atentos a la organización de este evento y no dejéis de participar, si es posible, con toda la familia.

personal eta komunitarioa berritzea da garizuman sartzea, eta Piztueraren argitan bizitza berri eta berritua bizitzeko prest egotea. Pazkoko argia da gure zerumuga. Pazkoko jendea gara.

Borroka espiritual horretan, ohiko armek —baraua, limosna eta otoitza— laguntzen digute, beste praktika batzuekin batera. Ildo horretan, garizuman bide horretan laguntzeko egin ditzakegun lau gauza erraz proposatzen dizkizuet:

1. *Egunero Jainkoaren Hitza entzun*: garizumako liturgiaren irakurgaiak ibilbide gisa balio diezagukete. Baliabide asko daude horretarako. Baita Interneten ere. On egiten digu gure hitzetan pobre eta Haren hitzetan aberats izateak. Entzun diezaiozun Jesusi, bere Hitzaren bidez mintzo baitzaigu.
2. *Elkartasunezko keinu bat*: etxerik gabeko jendeari laguntzeko proiektu zehatz batean sakrifizioarekin laguntzea. Elizbarrutiaren Hotzaldi aterpetxeak beste 25 leku zabaltzeko egitasmoa dauka. Caritasek azalduko digu proiektu horretan nola lagundu.
3. *Sakramentu bat*: penitentzia edo adiskidetze sakramentua aukera ona da gugan kristau bizitza berritzeko, Jainkoaren barkamenaren eta errukiaren indarra esperimentatuz. Ziur asko, garizuman aurkituko ahal izango duzu apaizen bat, aitortu ahal izateko. Ez utzi zure parrokiaren parte hartzeari, programatutako penitentzia ekitaldi eta ospakizunetan, besteak beste.
4. *Erromesaldia*: Urtero bezala, Erramu Igandearen aurreko larunbatean erromes joan, anai-arrebekin batera, Arantzazuko gure amaren etxera. Amaren etxera joaten garenean gertatzen den bezala, elkartu eta bat eginda sentitzen diren anai-arreben poza sentituko dugu, zalantzarik gabe. Bat eginda, bidelagun izanda, eraikitzen dugu haur, gazte eta helduok Jaunaren Eliza. Adi egon ekitaldiaren antolaketari eta, ahal izanez gero, ez utzi familia osoarekin parte hartzeari.

Os deseo, de corazón, un buen itinerario hacia la Pascua. Que el Señor nos de la gracia a todos de vivir una cuaresma que nos renueve y nos ayude a vivir en verdad y en toda profundidad la verdadera alegría del Evangelio, la de aquellos que se encuentran con Jesús (cf. *EG*, 1).

In Corde Matris,

✠ **Fernando**  
*Obispo de San Sebastián*

Pazkorako ibilbide hori ibilbide ona izatea opa dizuet, bihotzez. Eman diezagula Jainkoak guztioi garizuman biziberritzeko eta Ebanjelioaren benetako poza, Jesusekin elkartzen direnen poza, benetan eta sakontasun osoz bizitzen laguntzeko grazia (cf. *EG*, 1).

In Corde Matris,

✠ **Fernando**

*Donostiako Gotzaina*

**BENEDIKTO XVI.a AITA SANTUAREN HILETA-ELIZKIZUNA**  
**MISA FUNERAL**  
**POR EL ETERNO DESCANSO DEL PAPA BENEDICTO XVI**

*Catedral del Buen Pastor, 7 de enero de 2023*

«Gesù, ti amo!» «Maite zaitut, Jesus!» «Jesús, te amo». *Benetan hunkigarría. Hitz horiek entzutean, benetan, bihotza hunkitzen zaigu.* Los testigos confirman que esas fueron las últimas palabras que salieron de sus labios. Sencillas pero conmovedoras. Ante palabras así, uno se siente envuelto en el misterio. Y nos sucede casi como que enmudecemos. Parece que sobran las palabras, pero, en verdad, lo que sucede es que nuestras palabras no alcanzan a abarcar el misterio que se envuelve en esa sencillez y en ese bello estupor que produce escuchar un sincero «te quiero».

*Eliztar maiteok,*

Os invito hoy a fijarnos en una imagen que nos ofrece la primera lectura que hemos escuchado. El libro de la Sabiduría nos ha hablado de unas manos: en las manos de Dios. Así hemos escuchado: «Las almas de los justos que han muerto están en las manos de Dios». Es una imagen muy bella para hablar de la realidad de la muerte, aun en medio del dolor y el sufrimiento que esta siempre provoca.

Pensemos en esas manos de Dios. *Pentsa dezagun esku hoietan.* La fe nos lleva a confiar en que el Papa Benedicto XVI, que ha sido un hombre bueno y justo, ha pasado a vivir «en las manos de Dios». En ello confiamos. Confia-

mos en que eso es algo que será así también para nosotros. Un día así será para todos. De tener la vida en sus propias manos, y en manos de tantos que le acompañaron, Benedicto XVI ha pasado a tenerla en las manos del Padre.

Tal vez el morir sea, simplemente, eso: «pasar a las manos de Dios», entregarse a las manos de ese Dios bueno que nos acoge. Es la fe la que cree en esperanza. *Horixe da gure fedea, hori da gure itxaropena*. Confiamos en que las manos del Padre Dios son las manos que nos recibirán al morir. Manos de amor, de misericordia, de consuelo; manos de cercanía, confianza; manos firmes y tiernas al mismo tiempo. Pasar a estar en las manos de Dios Padre es pasar a estar en las mejores manos en las que, sin duda, podemos estar.

Son manos, por otra parte, conocidas. Muchas veces en la vida nos sostienen y acompañan, quizá en ocasiones sin darnos cuenta. Los creyentes confiamos —con temor y temblor— que esas manos nos acompañan siempre y no nos dejan. Así hemos rezado con el salmista: «Aunque camine por cañadas oscuras, nada temo, Señor, porque tú vas conmigo». Así lo creemos, porque son las manos de un Padre. En él creemos. En él ha creído profundamente el Papa Benedicto XVI. Confiamos que esas manos son las que hayan recibido a Benedicto XVI y en las que él ya descansa. Agradecidos, pues, encomendamos hoy a Dios su eterno descanso en esta Eucaristía.

El Papa Francisco decía anteayer en la Solemne misa de exequias en el Vaticano que «es el Pueblo fiel de Dios el que, reunido, acompaña y confía la vida de quien fuera su pastor. Como las mujeres del Evangelio en el sepulcro, estamos aquí con el perfume de la gratitud y el unguento de la esperanza para demostrarle, una vez más, ese amor que no se pierde; queremos hacerlo con la misma unción, sabiduría, delicadeza y entrega que él supo esparcir a lo largo de los años». Unción, sabiduría, delicadeza, entrega...

Verdaderamente, Benedicto XVI ha sido un hombre de una personalidad extraordinaria. De naturaleza tímida, pero de sensibilidad exquisita. Un hombre de Dios, rico en humanidad; amante de la belleza y de la ciencia; un infatigable buscador del rostro de Dios y un fiel y solícito servidor de la Iglesia, como el grano de trigo que cae en tierra y muere dando fruto del que nos ha

hablado hoy el Evangelio. *Benetan, Benedikto XVI.a handia handien artean izan da*. Un hombre grande entre los grandes. Un cualificado y ejemplar testigo de la fe ¡hasta el final!

El pasado mes de febrero, el entonces obispo emérito de Roma escribía lo siguiente: «Pronto me encontraré ante el juez supremo de mi vida. Aunque pueda tener motivos de temor y miedo cuando miro hacia atrás en mi larga vida, me siento, sin embargo, feliz, porque confío firmemente en que el Señor no sólo es el juez justo, sino, al mismo tiempo, Él es el amigo».

Sí, esa es la experiencia. Es la experiencia de haber descubierto en Jesús al amigo. Ese amigo que, a pesar de que nos conoce, o, precisamente porque nos conoce, nos quiere. Es el amigo que nunca falla. El amigo que está por nosotros aun cuando no lo merecemos. Así es la verdadera amistad. Por eso suele ser un bien escaso, pero es un don maravilloso del cielo cuando uno encuentra a alguien así.

Desde esta experiencia profunda de cercanía con «el Amigo», el Papa Benedicto XVI, este Papa sabio, delicado y lleno de unción puede decir: «Te quiero, Jesús». Tan solo tres sencillas palabras. Tres palabras que lo dicen todo. En ellas se resume la conclusión de una apasionante búsqueda. Buscando el rostro de Jesús, escribiendo sobre él magistralmente, especulando desde la razón teológica en esa búsqueda, Benedicto declara, feliz, el resultado de su encuentro: «Jesús, te quiero. Tú de verdad eres el amigo. Tú me has amado primero. Por eso te digo con el último aliento: Te quiero, Jesús. *Maite zaitut, Jesus*».

Ojalá nosotros, que caminamos en la fe, en medio de claroscuros, sepamos acertar así en nuestra búsqueda y lleguemos a esa misma conclusión: Jesús nos ama siempre, más allá de toda circunstancia. Él es el amigo que nunca falla. Ahí encontramos nosotros la causa de nuestra alegría y la consiguiente razón para amar a nuestros hermanos.

Que el Señor nos dé la gracia de descubrir esta profunda amistad con Él. Que los vaivenes de la vida no nos roben la certeza de saber que nuestras

vidas siempre están en las manos de ese Padre Dios que nos acompaña siempre, ahora y en la eternidad. Que así sea. Descanse en paz nuestro gran Papa Benedicto XVI, que en su último aliento nos ha dado el sublime testimonio de esa confianza que tanto necesitamos hoy. Gracias, maestro y hermano mayor, nuestro querido pastor universal, sencillo y humilde trabajador en la viña del Señor. *Benetan eta bihotzez: Eskerrik Asko!* Que su alma y las almas de todos los fieles difuntos, por la misericordia de Dios descansen en Paz.

✠ **Fernando**

*Donostiako gotzaina / Obispo de San Sebastián*

## **SAN SEBASTIAN EGUNA DÍA DE SAN SEBASTIÁN**

*Koruko Andre Mariaren Basilikan, 2023ko urtarrilak 20*

*Apaiz lagunok, erligioso, erligiosa, laiko eta famili maiteok, donostiarrak eta festarako kanpotik etorri zaretenok, agintari lagungarriak:*

*Dena ez da lana gure bizitzan. Esperientziak esaten digu, Jaiak lanaren nekea arintzen duela. Ona da, benetan, ardurak egun batzuetarako eten edo alboratzea. Penak Zokora esaten du abestiak.*

Hoy es día de fiesta y por eso hoy, dejando a un lado las penas, disfrutamos de esa dimensión lúdica e importante que también tiene la vida. Celebramos con alegría y orgullo la fiesta del patrono de nuestra ciudad. Nos hemos reunido en esta basílica de Santa María para celebrar. Al hacerlo, damos también

una orientación cristiana a nuestra fiesta patronal. Es una liturgia bella. Las lecturas, los cantos y la alegría son esos ingredientes que nos llevan a sentir y a actualizar vivamente la presencia de Dios entre nosotros. La mesa compartida, que es la Eucaristía, nos recuerda y nos actualiza la presencia de Jesús entre los suyos y la consiguiente fraternidad.

*Ze poza eta alaitasuna ematen duen herritar eta gure inguruko bizilagunekin lotuta eta gertu sentitzea!* La alegría de sentirse pueblo con los demás nos invita a buscar esa fraternidad mayor a la que estamos llamados. Los problemas y la fiesta a todos nos igualan y nos unen. En el dolor y en la fiesta, nos olvidamos de lo secundario y nos acercamos a lo primordial. Celebrando juntos saboreamos esa unión y ese sueño que quisiéramos vivir siempre. Lo que vivimos en un día, nos gustaría poder vivirlo todos los días. ¡Sí! ¡Es posible celebrar juntos! ¡Es posible convivir juntos, ser felices juntos! La fiesta es símbolo de una unión que es mucho más real y profunda en nosotros que aquello que nos pueda dividir.

*Gaur gogoratzen dugu gazte martiri baten bizitza. Berak ematen dio izena gure hiriri. San Sebastianen bizitza, berezia da, benetan.* Soldado del emperador, perseguido por ser cristiano, San Sebastián arriesgó su vida y su prestigio por ser fiel a su fe y proteger y defender a otros creyentes en peligro y en situación de persecución. El murió a sí mismo para que otros vivieran. En el negarse a sí mismo encontró la plenitud de su vida.

Así sucede también en nosotros. Es algo que experimentamos a menudo y de lo que no somos siempre del todo conscientes: somos más felices cuando morimos un poco a nosotros mismos y dejamos paso al otro. Esa es la experiencia: nuestra felicidad está en la felicidad de los demás. *Gezurra dirudi, baina horrela da.* Hor dago kokka. Hor dago gizon-emakumeen handitasuna. Es un misterio: cuanto más morimos a nosotros mismos, más posibilitamos la paz, la fraternidad y la felicidad de todos. Dios nos ha hecho, fundamentalmente, capaces de este amor que es donación. Es nuestra naturaleza más profunda. Todos somos capaces de amar y de entregar nuestra vida en bien de los demás.

Es la famosa ley del boxeador: «Hay más alegría en dar que en recibir». San Pablo nos asegura que esas palabras salieron de la propia boca de Jesús (*ipsissima verba Christi*).

La Eucaristía que celebramos nos habla también de esto: de entregarse y vivir para los demás. Es lo que nos enseñó Cristo y es lo que San Sebastián comprendió que tenía que ser su vida: hasta la muerte, sin ceder a los que querían anular su fe y lo que él más quería: vivir según el Evangelio que había abrazado; vivir sirviendo a los demás.

Hoy es un día también para agradecer a nuestros dirigentes, a nuestros representantes en la ciudad: a nuestro alcalde y concejales, a los políticos de la oposición. Nuestros representantes, con su entrega y su buena voluntad construyen y viven queriendo mejorar la vida de todos. Gracias, de corazón. Más allá de las ideas políticas de unos y de otros; más allá de toda ideología, vivís entregados al servicio de vuestros conciudadanos, a veces incomprendidos, sin el agradecimiento que tal vez no acertamos a expresar, sabiendo que, como todos, intentáis hacer las cosas lo mejor que sabéis y lo mejor que podéis, al servicio del bien común. Yo os agradezco expresamente vuestra entrega y vuestra ejemplaridad. Seguid queriendo ser buenos servidores de los ciudadanos, como yo quiero ser un buen obispo. No dejéis que los sinsabores cotidianos, o los errores cometidos por omisiones, o por los límites humanos que todos tenemos, minen vuestra ilusión por mejorar la vida de todos. Contad siempre con mi cercanía y mi cariño sincero.

A todos los presentes deseo que la vida entregada de San Sebastián sirva para iluminar nuestra vida cristiana, llamada a ser un testimonio en medio de nuestra ciudad. Que los cristianos no dejemos de ofrecer públicamente, respetuosamente, nuestra fe. Estoy convencido de que nuestra sociedad, más que nunca, necesita de las referencias evangélicas para vivir mejor.

Pidamos al Señor que nos conceda un día de fiesta lleno de alegría, de concordia ciudadana, de verdadera paz y fraternidad. Que el frío del ambiente se llene del calor de la amistad y de la ciudadanía compartidas. Os deseo en este

día, de corazón, toda la bendición de Dios para vosotros y para vuestras familias. No nos olvidemos de aquellos que no pueden celebrar, de quienes por diferentes razones se ven excluidos de la fiesta; mi bendición especial para los enfermos, para las personas en soledad -algunas quizá siguen esta Eucaristía por los medios de comunicación-; mi solidaridad y recuerdo para los más necesitados, con quienes no hemos de olvidar que también compartimos ciudadanía y fraternidad. Sin ellos, la verdadera fiesta de la vida no es del todo completa.

*Ba... hori. Festara! Dantzara!... Penak zokora! Jai pozgarri eta baketsu opa dizuet guztioi. Gora San Sebastian! Gora zuek, hiritarrok! Gora gure herriko ordezkari eta agintariak! Jauna bedeinka zaitzatela guztioi eta Koruko Ama eta San Sebastian izan bitez gure lagun minak! Aurrera!*

✠ **Fernando**

*Donostiako gotzaina*

## **BIZITZA SAGARATUAREN JARDUNALDIA JORNADA DE LA VIDA CONSAGRADA**

*Catedral del Buen Pastor, 5 de febrero de 2023*

*Apaiz lagunok, erligioso, erligiosa, laiko eta parrokiko lagun maite guztiok:*

*Santa Ageda egunean ospatzen dugu gure festa. Atzo gauean ikusi genuen gure herriko kaleetatik, alaitasun giroan, nola batzuek saiatzen ari zirela udaberria esnatzen, kolpeka, makilak astintzen lurraren kontra. Beraien kantak eta beraien presentzia gure kaleetatik, laister negua pasako dela gogorarazten*

*digu. Eta, urtero gertatzen den bezala, udaberria berriz etorriko da. Gutxie-  
nez, hori gertatuko dela espero dugu. Santa Agedako bezperako kantak go-  
goratzen digu udaberria gertuago dago, nahiz eta oraindik ez ikusi.* Los cantos  
de la víspera de Santa Águeda, día que hoy recordamos, nos recuerdan que  
la primavera está cerca. Quizá todavía no ha mostrado su rostro, pero sabe-  
mos que ya está más cerca. Las makilas y los palos golpean fuerte el suelo y  
le dicen a la tierra: «Despierta... deja pasar ya el frío invierno... necesitamos  
la primavera!»

Y lo mismo que Santa Águeda es una fiesta del pueblo, la Jornada anual de  
la Vida Consagrada es para todos una fiesta del pueblo de Dios. *Horrexegatik,  
gure festa, Jainkoaren herriarekin lotuta eta inguraturik ospatzen dugu.* Es  
un día para dar gracias todos, para celebrar con vosotros hermanos y herma-  
nas aquí presentes lo que significa este don de Dios para todos nosotros. Al  
hacerlo, renovamos nuestra esperanza al veros aquí hoy entre nosotros, ofre-  
ciéndonos ese testimonio que golpea nuestra tierra, anunciándonos la nueva  
primavera del Reino de Dios que está siempre viniendo. Dios nos bendice con  
vuestra vida en Gipuzkoa. Unas mil doscientas personas consagradas, con su  
testimonio de fidelidad probada, sois hoy fermento de esperanza en medio de  
esta masa que es nuestra sociedad.

Desde hace tiempo comprendemos que la vida consagrada, más que una  
vida mal segregada, tal vez de santidad inalcanzable que los demás, de alguna  
manera, teníamos que imitar, no es otra cosa sino un pequeño signo que nos  
anuncia la vida maravillosa junto a Dios que un día disfrutaremos todos en  
el Reino. Vuestra vida, cuando la miramos con profundidad, nos indica a los  
demás la posibilidad de vivir ya ahora, anticipadamente, una vida plena, llena  
de Dios, llena de alegría y de esperanza. Vuestras comunidades, que suman la  
vida de los que pertenecéis a ellas, están llamadas a ser ya ahora, podríamos  
decir, como un pedazo del cielo en la tierra. Un anuncio sencillo, un pequeño  
signo -como las Makilas- de que va pasando el invierno y de que hay una pri-  
mavera que esperar. Así como las makilas golpean la tierra, vuestras vidas gol-  
pean nuestras almas y las invitan a soñar y a abrazar nuevamente la esperanza.

Unai Manterola, maestro de ceremonias aquí presente, que es un hombre que conoce la Liturgia y la cultura popular me recordaba estos días lo que dicen los versos de la canción de Santa Águeda. *Barkatu nire abots pobregatik, baina saiatuko naiz abesten, gogoratzeko...*

*Ez gaude oso aberats diruz...  
ezta ere oinetakoz.  
Baina eztarriz sano gabiltza  
ta kanta nahi degu gogoz.*

«No tenemos muchos dineros, ni zapatos elegantes, pero andamos bien de garganta y por eso queremos cantar».

*Ez gaude oso aberats, ez. Agian ez ditugu nahi genituzke indarrak. Agian ahul eta txiki sentitzen gara, baina gure leialtasunaren testigantza kanta nahi degu. Gazte ez izateak edo gutxiago izateak ez du esan nahi itxaropena eta alaitasuna galdu dugunik. Ezta pentsatu ere! Zure aurpegiak ikustean argi daukat zer esaten duten zure begien dirdira polita eta bizitzaz betea.*

Además de agradecer hoy al Señor por vuestra vida, le pedimos que, a pesar de toda dificultad, a pesar de que no somos ricos ni tenemos zapatos elegantes; a pesar de que somos débiles y pequeños, o precisamente por serlo, nos conceda el don de comprender que la vida cristiana no depende de los éxitos o de las fuerzas humanas, sino del arraigo en este Dios que nos promete siempre una nueva primavera, que nos sigue invitando a vivir en fidelidad y esperanza. No hace falta mucha sal para dar sabor a un plato, ni una luz cegadora para dar luz y poder ver. ¿Cuántas makilas hacen falta para despertar la primavera? ¡Dios sabe! Dios sabe cuándo hará fructificar la semilla. Nosotros confiamos en su fuerza más que en la nuestra. Ahí radica nuestra esperanza: en la confianza que hemos puesto en él y en la fuerza de la semilla por él sembrada. Eso es ser radicalmente creyentes, como lo sois vosotros. Ese

es vuestro testimonio más valioso. Ser lo que sois vale más que lo que habéis hecho o hacéis. Lo que sois: hombres y mujeres de esperanza.

*Mila esker zuen bizitzak eta instituzioak eman dutena eta gaur egun ematen dutenagatik. Elizbarruti hau ez litzateke izango gaur egun dena. Izan ginena, horixe gara. Orain garena, horixe izango gara etorikizunean. Sustraiak ditugu, hegoak ditugu. Eutsi gogor eta bizirik fedea eta itxaropena... Jainkoak nahi duena emango digu momentua iristen denean. Eskerrik asko, benetan anai arrebak.*

Os deseo en este día, de corazón, toda la bendición de Dios para vosotros y para vuestras comunidades. Llevad mi bendición especial a todos los hermanos y hermanas más mayores y más enfermos, también a todos aquellos a los que acompañáis y servís, para que no dejen que nada les borre nunca la esperanza.

Gracias de corazón, hermanos y hermanas, por ese testimonio de fidelidad que estimula la nuestra. *Jauna bedeinka zaitzateela guztioi eta zuen komunitateko anai-arrebei! Aurrera!*

✠ **Fernando**

*Donostiako gotzaina / Obispo de San Sebastián*

---

## Agenda

### ENERO

\* *A partir de enero, el Sr. Obispo celebrará la Eucaristía todos los días a las 8:00h en la capilla de la Catedral.*

- 2:** Reunión con el Vicario Judicial
- 3:** Reunión con el Vicario de Evangelización  
Oración seculares Claretianos
- 4:** Reunión con el Vicario para la Vida Consagrada  
Entrevista Superior de los Hermanos de San Juan de Dios  
Entrevista Diario Vasco
- 5:** Entrevista en directo con TV  
‘Rosco solidario’: acto programado por Caritas diocesana  
Entrevista con el responsable y el seminarista que se va a ordenar sacerdote
- 7:** Misa funeral por el Papa emérito Benedicto XVI
- 8:** *Astotxo eguna*, en Lazkao
- 9:** Reunión ecónomo diocesano
- 10:** Primera reunión episcopal. Reunidos: Vicario General, Vicario Evangelización, Vicario Judicial, Vicario Social y Vicario Liturgia.  
Invitados: Ecónomo y párroco Hondarribia
- 11:** Entrevista con el responsable y el diácono que se va a ordenar  
Reunión con la Junta de CONFER
- 12:** Reunión con el Vicario de Evangelización: Colegios  
Reunión del Consejo económico  
Reunión con *Mariaren Bihotza abesbatza* y el Deán de la Catedral

### URTARRILA

\* *Urtariletik aurrera, Gotzain jaunak Eukaristia egunero ospatuko du, 8:00etan, Katedraleko kaperan.*

- 2:** Bikario Judizialarekin bilera
- 3:** Ebanjelizatze Pastoraltzarako Bikarioarekin bilera  
Klaretar laikoekin otoitza
- 4:** Biziera Sagaraturako Bikarioarekin bilera  
Elkarrizketa: San Juan de Dios Anaien Elkarte-burua  
Elkarrizketa: Diario Vasco egunkaria
- 5:** Zuzeneko elkarrizketa TV  
'Opil solidarioa': Caritasek antolatutako ekintza  
Apaiz ordenatuko den arduradunarekin eta apaizgaiarekin elkarrizketa
- 7:** Benedikto XVI.a Aita Santuaren hileta meza
- 8:** *Astotxo eguna* Lazkaon
- 9:** Elizbarrutiko ekonomoarekin bilera
- 10:** Gotzain Kontseiluko lehenengo bilera: Bikario Nagusia, Ebanjelizatze Bikarioa, Bikario Judiziala, Bikario Soziala eta Liturgia Bikarioa.  
Gonbidatuak: Ekonomoa eta Hondarribiko parrokoa
- 11:** Diakono berria eta bere arduradunarekin bilera  
CONFER juntakoekin bilera
- 12:** Ebanjelizatze Bikarioarekin bilera: ikastetxeak  
Ekonomia kontseiluko bilera  
*Mariaren Bihotza* abesbatza eta Katedraleko Deanarekin bilera

- 13:** Reunión responsables hospital Aita Menni
- 14:** Reunión Sínodo en el Seminario  
Ordenación sacerdotal en Soraluze
- 16:** Reunión Colegios  
Visita: Párroco Iesu confirmaciones
- 17:** Segunda reunión episcopal. Reunidos: Vicario General,  
Vicario Evangelización, Vicario Judicial, Vicario Social,  
Vicario Vida Consagrada y Vicario Liturgia
- 18:** Reunión responsable *Kristau Eskola*  
Reunión Vicerrector Deusto
- 19:** Visita: Superior General de los Hermanos de San Juan de Dios
- 20:** San Sebastián. Misa Santa María (Orfeón, tamborrada)
- 22:** Confirmaciones Parroquia Iesu
- 24:** 3ª reunión episcopal Reunidos: Vicario General, Vicario Evangelización,  
Vicario Judicial, Vicario Social, Vicario Vida Consagrada y Vicario Liturgia
- 25:** Reunión en la parroquia Dios nuestro Padre  
Reunión JMJ  
Visita de un misionero
- 26:** Reunión arciprestazgo Ekialde
- 27:** Oración por la Paz en la Catedral
- 30:** Jornadas sacerdotales
- 31:** Jornadas sacerdotales

- 13:** Aita Menni ospitaleko arduradunak
- 14:** Sinodoaren bilera seminarioan  
Soraluzeko parrokiari presbitero ordenazioa
- 16:** Ikastetxeetako bilera  
Iesu Parrokiako sendotzen prestakuntza
- 17:** Gotzain Kontseiluko 2. bilera: Bikario Nagusia, Ebanjelizatze Bikarioa, Bikario Judiziala, Bikario Soziala, Biziera Sagaraturako Bikarioa eta Liturgia Bikarioa
- 18:** *Kristau Eskolako* arduradunarekin bilera  
Deusto Unibertsitateko Errektoreordearekin bilera
- 19:** San Juan de Dios Anaien Elkarteburu Orokorren bisita
- 20:** San Sebastian. Santa Marian meza (Orfeoia, danborrada)
- 22:** Iesu parrokiako sendotzak
- 24:** Gotzain Kontseiluko 3. bilera: Bikario Nagusia, Ebanjelizatze Bikarioa, Bikario Judiziala, Bikario Soziala, Biziera Sagaraturako Bikarioa eta Liturgia Bikarioa
- 25:** Jainko gure Aita parrokiari bilera  
JMJ bilera  
Misiolari baten bisita
- 26:** Ekialde artziprestaldeko bilera
- 27:** Bakearen aldeko otoitza ikasleekin Katedralean
- 30:** Apaizen jardunaldiak
- 31:** Apaizen jardunaldiak

## FEBRERO

- 1:** Asociación 'Virgen de Ezkioga'
- 2:** Visita Obispo de Paraguay  
Reunión arceprestazgo Donostia
- 3:** Reunión con Secretaría General diócesis  
